

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Yolanda Barcinak Soria ministroari elkarrizketa eta adostasuna eskatu dizkio sektore elektrikoa eta energia berriztagarriak arautzean

Nafarroako Gobernuak konstituziokontrakotasuneko errekurtsua aurkeztu zuen primak sortzen dituztenei horiek kentzen dizkien arauaren aurka, izan ere, dekretuak Nafarroako 9.000 ekoizleri eragiten die.

Lunes, 28 de octubre de 2013

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak José Manuel Soria Industria, Energia eta Turismo ministroari eskatu dio elkarrizketa-bideak irekitzeko ministerioaren eta autonomia erkidegoen artean energiaren sektorearen etorkizuneko arau-esparrua adosteko.

Madriren izan den bileran, Lehendakariarekin batera izan

dira Iñaki Morcillo Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusia eta José Javier Armendáriz CENEReko zuzendari nagusia. Bertan, autokontsumoaren "bidesariari" eta CENERi eta instalazio esperimentalei eman beharreko babesari buruzko beste gai batzuk ere eztabaidatu dira.

Lehendakariak Foru Gobernuak teknologia berriztaileetarako primen egungo sistema bertan behera uzten duen errege-dekretuaren inguruan duen ikuspuntua jakinarazi dio Soria ministroari. Adierazi beharrekoa da, iragan urriaren 11n, Nafarroako Gobernuak konstituziokontrakotasuneko errekurtsua aurkeztu zuela arau horren kontra. Izan ere, 9.000 titularri eragiten die, gehienak inbertitzaile txikiak eta familiak. Energia berriztagarriak garatzeko estatuko eta autonomia erkidegoetako planek bultzatutako energia fotovoltaikoan inbertitu zuten eta, gaur egun, egindako inbertsioaren etorkizuna arriskuan ikusten dute.

Gainera, Yolanda Barcinak Nafarroako jarduera eta enpleguan izango duen eragin kaltegarriaren berri eman dio. Energia berriztagarrien garapena handia izan da eta alor horretan I+G+Bren alde egindako apustuari esker Nafarroako enpresak sektoreko lehenak izan dira. Gaur egun, Foru Komunitatea lehena da gai horretan, eta ehun bat enpresa ditu guztira 3.800 langile baino gehiagorekin.

Halaber, gogorarazi du proposatutako neurriek aurreztea eta energiaren eraginkortasuna sustatzen duten energia berriztagarrien



Yolanda Barcina eta José Manuel Soria Industria, Energia eta Turismo ministroa

garapen teknologikorako EUko baliabideak lortzea baldintza lezaketela.

Ikerketa eta garapen teknologikoa eta autokontsumoaren "bidesaria" kentzea

Autokontsumo elektrikoa arautzeko proposamenari lotuta, Barcina Lehendakariak, Parlamentuan onetsi zen bezala, beste proiektu bat negoziatzeko eskatu dio Soria ministroari, hau da, energiaren soberakinak sistema elektridora kanporatzen ez diren autokontsumo moduetan ez dezatela izan sistemaren kostuak eta zerbitzua estaltzeari loturiko laguntza-bidesari edo araubide ekonomikorik.

Kontsumitzaileek euren energia sortzeko duten aukerak iraunkortasuna ematen dio ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sistemari, eta enplegua sortuko luke, eraikuntzaren sektorea berraktibatu dezakeelako eraikinak energiaren aldetik birgaituz, teknologia horiek ezartzeko. Gainera, energiaren kostua merketzen du, sareko galerak aurrezten ditu eta Europako politikan ezarritako konpromisoak betetzea errazten du, 2020rako zehaztutako energiaren eraginkortasunari dagokionez alegia.

Azkenik, Espainiako enpresek energia berriztagarrien alorrean duten nagusitasuna nabarmendu du. Horretarako, CENERen babesak kontuan hartu da 2000. urtean sortu zenetik. Barcina Lehendakariak Soria ministroari CENERen etorkizuna bermatzeko beharra dagoela adierazi dio eta, beraz, Industria, Energia eta Turismo ministerioari esku hartzeko eskatu dio.

Era berean, esparru ekonomiko egonkor bat sortzeko beharra ere aipatu da, garapen teknologiko esperimentera eta berritzaile berriak bultzatzeko, ekoizpen-sistema eraginkorragoak eratze aldera, izan ere, Nafarroak erreferentziatzeko azpiegitura du nazioartean.



Gaur goizean, Madrilan, izan duten bilerako une bat.